


Bateria organikoak diseinatu dituzte

Litio-ioizko baterien garapenari esker, gailu eramangarriak eta ibilgailu elektrikoak nabarmen ugartu dira. Baina bateria horien hazkunde azkarrak agerian utzi du litioa, kobaltua eta beste baliabide mineral mugatu batzuk erazteak ingurumen-arazo larriak sortzen dituela, eta, hortaz, ez dela etikoa. Bestetik, litio-ioizko baterien ehuneko txiki bat baino ez da birziklatzen. Texas A&M Unibertsitateko zenbait kimikaririk bateria etikoagoak garatzea eskatu dute, eta proposamen bat egin dute jada: bateria organikoak sortzea, metalik gabekoak.

Bateria berritzaile horietan, metalak erabili beharrean, kate polipeptidikoak erabiltzen dira. Kate horietan, talde aktibo modura, biologenoak eta nitroxido erradikalak lotzen dira, anodo- eta katodo-material gisa funtzionatzen dutenak, hurrenez hurren. $37,8 \text{ mA h g}^{-1}$ -eko karga-ahalmen maximoa lortu dute bateriok.

Material organiko aktibo horiek bateria funtzionatzen ari den bitartean egonkor mantentzea lortu dute, eta, ondoren, baldintza azidoetan jarrita degradarazi dituzte: kate polipeptidikoak berriz ere aminoazido bihurtuta degradatzen dira. Badirudi, beraz, birziklagarriak izan daitezkeela. ●



Bateria organikoak garatzeko lehenengo urratsa eman dute zientzialariek. ARG.: *Nature* aldizkaritik moldatua.

Parkinsona eta garuneko zelulen atrofia

EHUko ACHUCARRO Basque Center for Neuroscience zentrotako Paula Ramos González ikertzailea parkinsona aztertzen ari da, eta ikusi du astrozito deritzen garuneko zeluletan atrofia gertatzen dela gaixotasunaren aldaera genetiko arruntena duten pertsonetan.



Fabio Cavaliere eta Paula Ramos, Achucarroko beren laborategian. ARG.: EHU.

Astrozitoak dira nerbio-sistema zentralako zelula ugariak; garunean daude, eta zeregin erabakigarria dute garunaren osasunean. Era berean, behar bezala funtzionatzen ez dutenean, gaixotasun neurologikoak eragiten dituzte. Gero eta argiago dago astrozitoen funtzionamendu okerrak eragin zuzena duela parkinsonaren garapenean. Ikerketa horretan ikusi dute astrozitoek atrofia morfologiko handia eta disfuntzio metabolikoa dutela, eta, hortaz, ezin dituztela neuronak ohi bezala elikatu.

Hurrengo urratsa pazienteen zeluletatik abiatuta garun organoideak sortzea izango da, ikertzaileen esanean. Horri esker atrofiaren eragina arintzeko hurbilketa terapeutikoa egin ahal izatea espero dute. [Nature](#) argitaletxearen *Parkinson's Disease* aldizkarian argitaratu dute lana. ●



Albiste gehiago,
webgunean